

BATERAGARRITASUNAREN ALDEKO TOKI ITUNA



ANTSOAIN

2012-2015

Emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasuna gure jendarteetako printzipio orokor oinarrizkoa da; printzipio etikoa, filosofikoa, juridikoa eta politikoa, hain zuzen ere. Printzipio hori beteko badugu, emakumeen eta gizonen arteko parte-hartze orekatua bermatu beharra dago bizitzaren alor publikoan eta pribatuan. Berdintasuna gure antolamendu juridikoan formalki aitortua badago ere, oraindik ere ezin dugu esan egiazko berdintasuna dagoenik emakumeen eta gizonen artean: egungo genero-harremanak ez baitira bidezkoak. Egiazko berdintasuna lortzea, zalantzarik gabe, gakoetako bat da gure jendartearen grapenerako, kohesiorako eta iraunkortasunerako, eta berdintasuna sustatzeak on eginen die bai emakumei bai gizonei, bai eta jendarte osoari ere.

Erakunde ofizialekin batera, ekonomia eta gizarte arloko eragileek ekintzak sustatzen dituzte emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunetako egoerak moldatzen saiatzeko. Hartara, epe luzerako estrategiak aplikatzen dituzte, egiturazko aldaketak eragiteko, generoen arteko harremanak eraldatze aldera; era berean, epe erdirako eta laburrerako estrategiak aplikatzen dituzte, jendearen eguneroko premiei erantzuten saiatzeko eta genero-harreman bidegabeek dakartzaten zailtasunak gainditzen saiatzeko.

Gure jendarteetan ez daude berdin banatuak familiako eta etxeko ardurak gizonen eta emakumeen artean, ezta zainketa-lanak ere; bada, oztopo handi horren ondorioz, emakumeek ezin dute lan-merkatuan erabat parte hartu, ezta lan-merkatuan iraun eta aurrera egin ere, eta ez dute eskubide sozialak eskuratzetik, ezta ordainketa jasotzerik ere. Bestalde, zainketa-lana behar bezala aitortua ez dagoenez, eta egungo genero-estereotipoak ikusita, gizonezkoak ere ez dira zainketaren eta afektuen munduan bete-betean sartzen, eta ez dute beren autonomia erabat garatzen zainketari dagokionez. Emakumeek eta gizonok ez ditugu gure bizitza-denborak era orekatuan erabiltzen. Norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egitea bereziki zaila da emakumeentzako, baina baita gizonentzako, familientzako, udalentsako, enpresentzako, lan-merkatuarentzako eta, oro har, gizartearentzako ere.

Berdintasunaren izenean eta iraunkortasun sozialaren izenean, uste dugu beharrezkoa dela emakumeek eta gizonek hobeki bateragarri egin ahal izatea norberaren bizitza, familia eta lana. Jakin badakigu, hori lortuko bada, familiei laguntzeko neurri eta zerbitzu gehiago eta hobeak sustatu beharko direla mendekoei harrera egiterakoan, eta lana bestela antolatzea bultzatu behar dela, eta bultzatu ere, giza baliabideak kudeatzeko beste modu batzuk, bai eta bestelako lan-baldintzak administrazioetan eta enpresetan ere. Baina, oroz gain, gure iritziz, mentalitatea aldatzea bultzatu behar da, gizonek eta emakumeek orekatasunez har ditzaten bere gain etxeko eta familiako ardurak eta lanak, bai eta zainketa-lanak ere, denbora zuzentasun handiagoz erabiltze aldera.

Zabaldua dagoen ideia baten arabera, bereziki eta berariaz emakumeak ukitzen dituen gatazka baten ondorioa da **bateragarritasuna**, emakumeak lan-merkatuan sartu izanak eragindakoa. Argi eta garbi esan dezagun garrantzitsua dela emakume eta gizon guztien artean ideia hori gainditzen saiatzea. Guk, izan ere, **zainketaren etika** garatzea bultzatu nahi dugu, aukera-berdintasuna sustatzeko gakoetako bat baita eta, bereziki, bateragarritasuna garatzen laguntzeko lanabesa; horrenbestez, etxe arloko zainketa, eta mendekoei familian eta erkidegoan harrera egitea, izan ere, emakumeek eta gizonek berdintasunez eta **erantzunkidetasunez** bere gain hartu behar dituzten oinarrizko balioak dira, jendearen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzen lagunduko baitute.

Toki esparrua arlo ezin hobea da bateragarritasuna bultzatzera bideratutako baliabideak eta zerbitzuak sustatu eta kudeatzeko, eta, era berean, zainketaren etika sustatzeko; hartara, herritarrek engaiatu eta parte hartu behar dute bateragarritasuna bultzatzeko baliabide eta zerbitzu guztiak ezartzeko prozesuaren fase guztietan, diseinutik eta antolaketatik hasita kudeaketaraino eta erabileraraino. Horrek esan nahi du enpresek, hezkuntza-erkidegoak eta tokiko beste eragile batzuek engaiatu behar dutela zainketaren etika eta erantzunkidetasuna sustatzen dituzten lan molde berriak garatzen. Eta horrek ere esan nahi du herritarren artean eztabaida eragin behar dela, jarrerak zalantzan jarri behar direla, zertarako eta zainketarekin lotuta dauden lanak orekatasun handiagoz garatzeko eta zainketa-lan horiek are gehiago baloratzeko, betiere bateragarritasuna errazte aldera.

Esandakoa gogoan, gure udalerrian diharduten entitateen eta eragileen arteko **UDAL ITUN** bat proposatzen dugu. Ituna, azken finean, **elkarrekin aritzeko konpromiso aktibo eta parte-hartzaile bat da, herritarren artean norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiteko estrategia gehiago eta hobeak sustatze aldera**. Itun honen bidez, horrenbestez, gure laguntza eman nahi dugu emakumeen eta gizonen artean harreman berriak sor daitezen, emakumeak eta gizonak jendartearen pertsona gisa gehiago garatze aldera.

BERDINTASUNAREN INGURUKO AURREKARIAK ANTSOINGO UDALEAN

Antsoingo Udalak, 2008an, iraunkortasunaren aldeko konpromisoa hartu zuen, egungo jendartearen nagusi diren balioak eraldatzeko, pertsonen barrenetik, eta herritarrak horren inguruan sentsibilizatzeko; hartara, behar adina aldaketa sustatuko dira jendearen portaerak aldatzeko, zertarako eta etorkizun iraunkorragoa lortzeko ingurumenaren osotasunari eta bideragarritasun ekonomikoari begira eta, era berean, egungo eta etorkizuneko belaunaldientzako, jendarte bidezkoa erdiesteko.

Jendarte iraunkor batek gizakien premiak eta haien bizi-kalitatea hartzen ditu kontuan, eta aukera-berdintasuna garatzen dihardu, betiere irizpide hauek oinarri harturik: parekotasuna, barnerakoitasuna eta bizigarritasuna. Hartara, Antsoainen badugu indarrean emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunaren aldeko I. Plana (2010-2014). Plana, funtsean, tresna eta bitarteko bat da, legez jasota eta aitortua dagoen eskubide bat errealitate izan dadin gure herriko jendearen eguneroko bizitzan.

Plana diseinatzen hasi aurretik, diagnosi bat egin zen, emakumeek eta gizonen arlo zer-nolako egoera zuten jakiteko: "Udalerriko genero-egituraren azterketa. Antsoain: 2007-2008". Azterlana emakume eta gizon antsoaindarren egoerari buruzko erradiografia bat izan zen eta Antsoaingo herritarrek bateragarritasunaren arloan zer premia zituzten agerrarazi zituen.

2008an, gainera, Berdintasunerako Udal Zerbitzua abiarazi zen, eta hartan Aukera Berdintasunerako Eragile bat hasi zen lanean, gure herriko udal politika publikoak diseinatu, planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko. Hasieratik beretik, Berdintasunerako Zerbitzuak Tokiko Agenda 21ekin koordinazioan jardun du eta estrategia-ildo bat lehenetsi du; hots, aukera-berdintasuna oinarritzko irizpidetzat jotzea Antsoaingo toki-garapenaren barruan. Generoa, gainera, zeharka sartu du gure herriko Tokiko Ekintza Planean bildutako ingurumen, gizarte eta etika arloetako jarduketara guztietan.

Hain zuzen ere, bereizkeria eta desberdintasun horiek ezabatu nahi direlako, plan honetan neurri egokiak ezarri dira estereotipo eta jokamolde soziokultural jakin batzuk ezabatzeko. Estereotipo eta jokamolde horiek, izan ere, emakumearen eskuetan uzten dute etxeko kontuen ardura, eta, gizonen eskuetan, aldiz, kontu publikoena, ahaztu gabe horren oinarrian dagoela desberdin baloratzen direla ekonomikoki emakumea eta gizona, eta desberdina ere badela emakumeek eta gizonen gizaratean jasotzen duten aitortza. Horregatik guztiagatik, Aukera Berdintasunaren aldeko I. Plan hori erreferentziatzeko esparrudokumentuetako bat da gure Udalean iraunkortasunaren alorrean egiten diren zeharkako politiketarako. Planari, bidenabar esanda, 2010eko urtarrilaren 27ko osoko bilkuran eman zitzaion onespena, aho batez eman ere, eta 2010eko apirilaren 19ko NAO-n argitaratu zen; 48. zenbakian, hain zuzen ere.

Proiektuaren izaera bateratzaileari dagokionez, azpimarratu behar da berdintasunari buruz dauden arauak biltzen dituela: nazioartekoak, Europakoak, nazionalak, Foru Komunitatekoak eta tokikoak. Bereziki, Iraunkortasunerantzko Tokiko Ekintza Plan Estrategikoa (tokiko ekintza plana), Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen

arteko Aukera Berdintasunaren aldeko I. Plana (2006-2010), Aukera Berdintasunerako Estatuko V. Plan Estrategikoa (2008-2011) eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 2006-2010 bitarteko Lan Plana (Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen irizpena, Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari egindako komunikazioari buruz) eta Aalborgeko+10eko konpromisoak (2004).

Kontuan hartzen dira emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean oztopoak gainditzeko neurri aringarriak, baita biztanle guztiak berdintasunaren eta erantzukizun partekatuen (erantzunkidetasunaren) alorrean hezteko eta gizarteratzeko prozesua xede duten prebentzio alderdiak ere.

Horrela, Antsoaingo Bateragarritasunaren aldeko Udal Ituna bera Aukera Berdintasunaren aldeko Antsoaingo I. Planean bildutako jarduketa zehatz bat da, eta, haren bidez, Erantzunkidetasuna eta Bateragarritasuna zehar-arloaren helburu bat garatzen da.

- 1. proiektua.-Antsoaingo herritarrei lana, familia eta bizitza pertsonala bateratzen laguntzeko egiturak eta zerbitzuak garatzea.

C1 helburua.

Gizarte antolaketa aldatzen lagunduko duten tresnak sortzea, emakumeen eta gizonen arteko erantzukizun partekatua eta bizitza pertsonalaren, familiararen eta lanaren bateratzea helburu.

C1.1.4 ekintza.-Bateragarritasunaren aldeko Udal Ituna diseinatu eta garatzea, erantzunkidetasuna abiapuntutzat harturik familia eta lana bateratzeko, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak lagundurik. Denbora banatu eta erabiltzeko moduan (denbora soziala, kolektiboa, lan ordutegiak...) dauden desberdintasunen gainean gogoeta egiteko espazioak sortzea udalerrian, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna funtsezko elementutzat hartuta.

Arlo arduradunak: Berdintasunerako Zerbitzua eta gainerako udal zerbitzuak.

2011n, halaber, Emakumeekiko Indarkeriaren aurkako toki-ekintzako I. Protokoloa garatu da; agiriak biltzen ditu udal berdintasun-politiken arauak, kontzeptu-esparrua eta lan-tresnak genero-indarkeriari buruz.

Amaitzeko, Antsoaingo emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunaren erronka gainditzea Antsoaingo Udalaren eta bizilagun guztien konpromisoaren mende dagoelakoan, apustu egiten dugu, abiaburu gisa, guztiok ohar gaitzen berdintasunaren lorpenak gure herriaren garapen iraunkorra dakarrela berekin.


ABIAPUNTUKO EGOERAREN AZTERKETA

1. BIZTANLERIA

a. Gutizko datuak udalerrian, sexuaren eta adinen arabera. Biztanleriaren bilakaera.

2010ean, Antsoainek 10.603 biztanle ditu; haietatik, 5.269 emakumezkoak dira, eta 5.334, gizonezkoak. Emakume gehienak (% 69,6) 15 eta 64 urte arteko adin tartean daude; % 20,3, berriz, 15 urtetik beherakoa da, eta % 10,65, berriz, urtetik gorakoa. Ez dago sexuen arteko alde nabarmenik adinen banaketan, baina emakumezkoek gizonezkoek baino zifra handixeagoak dituzte muturreko adin tartetean; hau da, 0-14 urteetan, bai eta 65 eta hortik gorako urteetan ere. 80 urtetik gorako emakumeen ehunekoa gizonena bi aldiz da ia (% 2,3 eta % 1,2, hurrenez hurren).

Gráfico 1.3. Pirámide de la población de Ansoáin. Años 1981 y 2007.



Nota: Los datos del padrón están referidos a fecha 12 de diciembre de 2007.
Fuente: elaboración propia a partir de los datos del Censo de Población y Viviendas (año 1981) y del Padrón municipal (año 2007).

1.3. Grafikoa. Antsoaingo biztanleria-piramidea. 1981. eta 2007. urteak adina bost urtetik bost urtera 100 edo gehiago biztanleriaren % 2007 emakumeak / 2007 gizonak / 1981 emakumeak / 1981 gizonak

1.3. taula. Gazteriarri, gehiegizko zahartzeari eta mendekotasunari buruzko indizeak Antsoainen, sexuaren arabera. 2007. urtea.

Antsoainek, beraz, udalerrri gazte-gaztea izatea du ezaugarri, eta biztanleria izugarri handitu da, Iruñerrian kokapen geografiko estrategikoa daukalako.

25 eta 34 urte artean gertatzen da gehienbat ezkontzarako pausoa. Zehazki, adin horietako emakumeen % 60 ezkontdua dago; % 37, ezkongabe, eta, ondoren, poliki-poliki handitzen da, harik eta 50-59 urte artean % 84ra iritsi arte. Adin horretatik aurrera, bigarren aldaketa gertatzen da Antsoaingo emakumeen egoera zibilean; alarguntasunerantz, hain zuzen. Emakume ezkonduen ehunekoa, izan ere, oso nabarmen jaitsi, eta, aldi berean, alargunen ehunekoa handitzen da; horrela, 75 urtetik gorako emakume gehienak alargunak dira. Emakume bananduen eta dibortziatuen ehunekorik altuenak 30 eta 54 urte artean gertatzen dira; aldiz, ez da holako egoera zibilean dagoen emakumerik 75 urtetik aurrera.

Antsoingo udalerriari dagozkion datuak zaharragoak dira. Datuen arabera, emakume antsoaindarrek parte-hartze oso altua dute lan-merkatuan; ezaugarri hori herriko gizonezkoei ere badagokie.

Horrekin bat, jarduerarik ezan sarturik dauden egoeren portzentajeak Nafarroakoak baino askoz ere apalagoak dira. Salbuespen nabarmen bat dago, ordea; etxeko lanetan ari diren emakumeen ehunekoa antzekoa baita Antsoainen eta Nafarroan. Zehazki, lau emakumetatik bat etxeko lanetan soilik aritzen da.

Langabeak

Antsoingo biztanleria 10.603 biztanlez osatua dago, 2010eko urtarrileko biztanleria-eroldaren arabera. 2011ko abuztuan, guztira, 744 langabe zeuden; haietatik, 420 emakumeak dira, eta 324, gizonak.

emakumeak			gizonak		
>25 urte	24-44	>= 45 urte	>25 urte	24-44	>= 45 urte
21	252	147	32	185	107

3. ERAKUNDE EGITURA

- **UDALBATZA.**

OSASUN, HEZKUNTZA, BERDINTASUN, ANIZTASUN ETA GIZARTE ZERBITZUEN BATZORDEA

- **UDAL ZERBITZUAK**

ADMINISTRAZIO ZERBITZUAK, GIZARTE ZERBITZUAK, KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA, TOKIKO AGENDA 21, EZKABA IKASTETXE PUBLIKOA, ANTSOINGO MUSIKA ESKOLA, SAN CRISTOBAL HAUR HEZKUNTZAKO UDAL ESKOLA, BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA, EUSKARA, ENPLEGUA, POLIZIA, ANTSOINGO KONTSUMO UDAL BULEGOA, ZABOR BILKETA ETA GARBIGUNEA, INFORMAZIOA.

4. MANKOMUNITATE HAUETAKO KIDE DA

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza zendea eta Txulapain.

Iruñerriko Mankomunitatea

5. EKONOMIA-EHUNA

Antsoingo ekonomia-ehuna oso antzekoa da Iruñerriko beste udalerrri batzuetako ehunarekin, eta oso lotua dago Iruñeko egoerarekin.

Antsoainek 257.000m² inguruko industrialde bat dauka eta bi unitatetan banatua dago. Kokapen ona dauka eta, horri esker, ongi komunikatua dago errepidez, iparraldeko ingurubidearen hegoaldean baitago.

Hona hemen industrialdeko industria nagusiak:

- Metalak eraldatzeko industriak eta doitasunezko mekanika.
- Bestelako manufaktura-industriak (beira, zura, larrua, likoreak, kafea, etab.)
- Banaketa-biltegiak.
- Zerbitzu- eta konponketa-enpresak.

Udalerriko dendak

Aurreko puntuan azaldu dugun bezalaxe, Antsoingo merkataritza-ehuna sendoa eta denetarikoa da. Bezeroak, gainera, fidelak dira, jendeak behar duen guztia udalerrian bertan baitago, eta horrexek merkataritza sendotzen du.

Antsoainen badago oinarritzko elikagaiak eta garbiketa-gaiak denda txikietan erosteko aukera, bai eta premia gorrikoak ez diren produktuak ere.

Hongi lotua dago, gainera, hiriko autobusaren 3., 7. eta 11. lineekin, eta horrek biztanleei aukera ematen die baliabide espezializatuera joateko edo berariazko erosketak egitera joateko.

- a. Enpresa- eta merkataritza-erakundeak

Oraingoan, udalerrian ez dago enpresa-erakunderik.

- b. Erakunde sindikalak

Antsoainen ez dago erakunde sindikalen bulegorik. Hiriburutik, Iruñetik, hurbil dagoenez, erraza da baliabide horiek erabiltzea.

6. GIZARTE EHUNA

- a. Udalerriko elkarteak eta jarduketa-esparrua.

Kultur elkarteak

TXINPARTA ELKARTEA

ANTSOINGO ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KONPARTSA

EL CHARCO PEÑA, KULTUR ETA AISIARAKO ELKARTEA

SARASPEA ELKARTEA, KULTUR, KIROL, AISIA ETA GASTRONOMIA ELKARTEA

BIKUPE ELKARTEA

ARRIKULUNKA ELKARTEA

Kirol elkarteak

ANSOÁIN KIROL KLUBA

Gizarte elkarteak

NAFARROAKO ESKLEROSI ANIZKOITZAREN ELKARTEA (ADEMNA)
EZKABA ERRETIRATUEN ETA PENTSIODUNEN ELKARTEA
EMAKUME DINAMIKOEN ELKARTEA
SAN KOSME ETA SAN DAMIAN AUZO ELKARTEA
BETILORE TALDE EKOLOGISTA ETA KULTUR TALDEA
ANTSOAINGO TXOSNAK
ANTSOAINGO CÁRITAS

Hezkuntza elkarteak

EZKABA IKASTETXE PUBLIKOKO GURASO ELKARTEA

7. ZERBITZUAK, AZPIEGITURAK ETA PROGRAMAK

a. Udal ekipamenduak eta tipologia:

Kirola: Kiroldegia, Pilotalekua, Patinaje-pista, Rokodromoa, Igerilekuak, Idaki Gune Hidrotermala, Futbol-zelaia, skte-eremua, aire zabaleko gimnasioa eta parkeko zirkuitua.

Kultura: antzokia, Kulturgunea, Liburutegia, Musika Eskola.

Gizartea: Gizarte Etxea, Gaztelekua, Hiriko Udalekuak.

Hezkuntza: 0-3 urte ikastetxea. Ezkaba Ikastetxe Publikoa.

Osasuna: Lehen Laguntzako Zentroa eta Buru Osasunerako Zentroa.

Beste batzuk: Gazte Berriak Patronatuaren aretoak eta Ezkaba Mendia

b. Gizarte zerbitzuak, Kirola eta Kultura sustatzeko Patronatua, Berdintasunerako Zerbitzua, Euskara Zerbitzua, Enplegu Zerbitzua, Tokiko Agenda 21, Gazteria Zerbitzua, Kontsumitzailearentzako Bulegoa.

c. Urteko kultur eta kirol programazioa. Euskararen Astea. Kultur Astea. Gazteriaren Astea. Iraunkortasunaren eta Berdintasunaren aldeko Ospakizunak. Berdintasun Plana. Indarkeriaren aurkako tokiko protokoloa. Tokiko Ekintza Plana.

Beste zenbait datu interesgarri

Biztanleriaren % 50etik gora badira ere, emakumeek zailtasun bereziak dituzte lana aurkitzeko. Emakume etorkinek, minusbaliatuek edota gazteek are zailtasun handiagoak izaten dituzte lan egiteko.

Ez dago erantzunkidetasunik mendekoak (adingabeak nahiz adinekoak) zaintzeko, eta hori oztoporik handienetako bat da emakumeentzako, lan-merkatuan sartzerakoan. Horren ondorioz, emakumeak maiz lan prekarioetan eta aldi baterako lanetan aritu behar izaten du. Oro har, emakumeak bateragarri egiten ditu bere orduak lan egin ahal izateko, eta, horrek bere ondorio txarrak izaten ditu: lan-kalitatea murriztea, etorkizunean prestazio mugatuagoak jasotzea, eta lanaldi bikoitzak eta, are gehiago, hirukoitzak ere egitea. Hori ikusita, beharrezkoak dira, beraz:

- Haurrei/adinekoei noizbehinka laguntzeko etxez etxeko zerbitzuak (adibidez: emakumea lan-elkarrizketetara joateko).
- Haur eskolan ikastoki gehiago eskaintzea.
- Udal zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea, familiako kideen artean bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna bultzatzeko.

ITUNAREN HELBURUAK

Egoerari buruzko azterketa egin ondoren bateragarritasunean atzeman diren premiak ikusita, Antsoingo Itunak berriazko helburu hauek lortu nahi ditu:

- Herritarrak bateragarritasunean, erantzunkidetasunean eta zainketaren etikan sentsibilizatzea.
- Itunaren bidez, zainketa oinarrizko balio gisara sustatzea eta mentalitateak eraldatzea.
- Negoziazio kolektiboan zainketarako eta erantzunkidetasunerako xedapenak txertatzea.
- Antsoainen lan produktiboa eta zainketa-lanak orekatasun eta zuzentasun handiagoz bana daitezen sustatzea.
- Kontratazio publikoa sustatzea, zainketa eta erantzunkidetasun arloko irizpideak kontuan hartzen dituzten parametro iraunkorrak erabilia.
- Antsoingo herritar taldeak bateragarritasunaren inguruan presta daitezen bultzatzea, ituneko jarduketak diseinatzeko eta esku-hartzeko tresnak eskura izan ditzaten.
- Langileen eta zainzaileen bateragarritasuna erraztea, hainbat mekanismoren bidez eta elkartasunezko gizarte-jarduketan bitartez.
- Antsoingo herritarrentzako bateragarritasun arloko zerbitzuak eta baliabideak ematen eta zabaltzen jarraitzea.

Bateragarritasunaren arloan planteatzen diren bost jarduketa-alor orokorretatik (hau da, sentsibilizatzea, prestakuntza, lan-denborak antolatzea eta berrantolatzea, pertsonen arteko akordioak, zerbitzuak eta baliabideak egokitu eta hobetzea), lehentasunezko lau arlo hauek bultzatzea aukeratu dugu, Itun hau garatzeko:

1. SENTSIBILIZAZIOA
2. PRESTAKUNTZA
4. PERTSONEN ARTEKO AKORDIOAK.
5. ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK SORTU, EGOKITU ETA HOBETZEA

Itun honen helburuak lehentasunez esku hartu beharreko alor horien baitan lortzea gogoan harturik, ENTITATE HAUEK (bakoitzari buruzko deskribapena eranskin gisa erantsi zaio agiri honi), hots,

ANTSOINGO UDALAK
GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAK
PSNk
BILDUK
ANTSOINGO OSASUN ETXEAK
EZKABA ESKOLAK
EMAKUME DINAMIKOEN ELKARTEAK

ANTSOAINGO CARITASek
NAFARROAKO ESKLEROSI ANIZKOITZAREN ELKARTEAK
EZKABA IKASTETXEKO ALAITXO GURASO ELKARTEAK
AGI (GAZTE ASANBLADAK)
BIKUPE ELKARTEAK
SARASPEA ELKARTEAK
TXINPARTA ELKARTEAK
ARRIKULUNKA ELKARTEAK
SEDENA S.L. ENPRESAK
PAUMA S.L. ENPRESAK
ODOS S.L. ENPRESAK

HITZARTU DUTE

LEHENA: Adierazpen orokorra

Bateragarritasunaren aldeko Udal Ituna (aurrerantzean, "Ituna") eta urteko Lan Programa bete eta gara dadin begiratzea eta, era berean, haien bitartez hartu diren konpromisoak Itunak dirauen bitartean sustatzea eta errespetatzea.

BIGARRENA: Itunaren iraupena

Itunak lau urteko iraupena izanen du, 2012tik 2015era, eta, behin epe hori bukatutakoan, entitate sinatzaileek ituna luzatzen edo berritzen ahalko dute.

HIRUGARRENA: Lan-programa

Itun honen helburu orokorra eta berariazko helburuak betetzeko, urtero Lan Programa bat landu, onetsi eta garatuko da, urtero lehentasunezkoak jotzen diren alorretan jarduketa egokienak biltzeko.

LAUGARRENA: Itunaren antolaketa

Ituna kudeatzeko, "bateragarritasunaren aldeko Udal Itunaren Talde Koordinatzailea" osatu da (aurrerantzean, "Itunaren talde Koordinatzailea" edo "Talde Koordinatzailea". Aipatu Talde Koordinatzailean kide bana izanen dute Ituna sinatu duen entitate bakoitzak, botoarekin eta hizpidearekin. Entitate bakoitzeko nahi adina lagunek parte hartzen ahalko dute bilkuretan hizpidearekin baina botorik gabe.

Itunaren Talde Koordinatzailea lauhilekoan behin bilduko da bilera arruntean, eta Udalak, bere ekimenez edo edozein entitate sinatzailearen eskariz, bilkura berezia deitzen duen bakoitzean.

Erabaki guztiak adostasunez hartzen saiatuko dira. Adostasunik ez badago, bilkuran dauden entitate sinatzaileen botoen gehiengo soilaz hartuko dira. Talde Koordinatzaileak hartzen dituen erabaki guztiak dagokion bilkuraren aktan jasoko dira.

Itunaren Talde Koordinatzaileak, besteak beste, eginkizun hauek izanen ditu:

- urteko lan-programa diseinatu, koordinatu, gauzatu eta ebaluatzea;

- urteko lan-programaren jarduketak garatzeko behar diren baliabideak bilatzea;
- ituna zabaltzea eta atxikimendu berriak eskatzea;
- itunari atxikitzeko eskariak eta entitateen baja-eskaerak edo proposamenak onestea;
- Talde Koordinatzailearen jarduna berrikustea, Ituna garatzeko errealitatera egokitzeko;
- Itunaren edukia berrikustea;
- Itunaren luzapena onestea, egokia bada, edo Itun berria landu eta onestea;

BOSGARRENA: Entitate sinatzaileen eginkizunak eta ardurak

Udala Itunaren entitate antolatzailea izanen da, eta bereziki arduratuko da itunaren Talde Koordinatzailearen bileretarako deia egiteaz, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin hitz egiteaz eta bilkuretako akta egiteaz.

Entitate sinatzaileek bere gain hartuko dituzte urtero garatuko den lan-programaren jarduketetatik eratortzen diren eginkizunak eta ardurak. Horrez gain, konpromisoa hartu dute Ituna zabaltzeko eta jendeak eta entitateek Itunaren jarduketetan parte har dezaten sustatzeko, betiere bakoitzaren gaitasunaren arabera.

SEIGARRENA: Itunaren eta lan-programaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Talde Koordinatzaileak, bere aldetik, Itunaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak diseinatu eta garatuko ditu, betiere urteko lan-programarekin elkarlanean. Entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen jarduketan jarraipena egiten du.

ZAZPIGARRENA: Atxikimenduak eta bajak

Udalerriko edozein entitatek eta gizarte-eragilek bat egin dezake Itunarekin, betiere Itunaren printzipioekin eta helburuekin ados badago, eta entitate sinatzaileek hartutako erabakiak errespetatzeko eta garatzen laguntzeko konpromisoa hartzen badu.

Itunarekin bat egin nahi duen edozein entitatek eskaera idatzia aurkeztu beharko du Udalean. Itunaren Talde Koordinatzaileak eskaera hurrengo bilkura arruntean edo berezian baloratu eta, hala badagokio, onetsiko du. Entitate eskatzaileari erabakiaren berri emanen zaio eta, eskaria onartzen bada, entitate hori "Itunaren entitate sinatzaileen erregistroan" inskribatu da eta bertan bere sinadura jarriko du.

Talde Koordinatzaileak onetsi eta jakinaraziko ditu Udalari baja-eskaerak aurkezten dizkioten entitateen bajak. Talde Koordinatzaileak, halaber, entitateen bajak onetsi eta jakinaraziko ditu, baldin eta arrazoiz uste badu entitateek ez dituztela bete Itun honen bidez hartutako konpromisoak.

2012. URTERAKO LAN PROGRAMA

1. HERRITARRAK SENTSIBILIZATZEA ETA ITUNA ZABALTZEA
2. PRESTAKUNTZA
3. PERTSONEN ARTEKO AKORDIOAK
4. ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK SORTU, EGOKITU ETA HOBETZEA

[Ikusi jarduera-fitxak jarduerari buruzko argibideak izateko]

JARDUERA FITXAK

JARDUERA ZENBAKIA	1.1
ALORRA	SENTSIBILIZAZIOA
IZENBURUA/HELBURUA	ITUNA ZABALTZEA
EDUKIA	Kanpaina bat, jarduera bat edo jarduera sorta bat diseinatzea, Ituna ezagutzera emateko eta mezua herritarrenganaino iristeko.
NORENTZAT	Antsoaingo herritarrentzat, oro har.
EGUTEGIA	URTE OSOA
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Edukiaren arabera
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	ITUNAREN TALDE KOORDINATZAILEA
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK

JARDUERA ZENBAKIA	1.2
ALORRA	SENTSIBILIZAZIOA
IZENBURUA/HELBURUA	ZAINTZEKO LANKIDETZA SAREAK
EDUKIA	Herritarren plataforma bat diseinatu eta antolatzea, zainketa-lanetan elkartasunezko lankidetzaz sortzeko.
NORENTZAT	Antsoaingo herritarrentzat, oro har, eta, bereziki familientzat
EGUTEGIA	URTE OSOA
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Materialak eta dokumentuak.
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	ITUNAREN TALDE KOORDINATZAILEA
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK.

JARDUERA ZENBAKIA	1.3
ALORRA	SENTSIBILIZAZIOA
IZENBURUA/HELBURUA	BATERAGARRITASUNERAKO ESKUBIDEEI BURUZKO INFORMAZIOA
EDUKIA	Mekanismoak diseinatu eta abian jartzea, bateragarritasunaren inguruko legeei eta eskubideei buruzko informazioa bideratu eta herritarren artean zabaltzeko.
NORENTZAT	Antsoaingo langile, familia eta herritarrentzat, oro har.
EGUTEGIA	URTE OSOA
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Dokumentazioa eta hedapen-euskarriak.
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	BERDINTASUNERAKO ALORRA
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK.

JARDUERA ZENBAKIA	1.4
ALORRA	SENTSIBILIZAZIOA
IZENBURUA/HELBURUA	“NOS MOLA CUIDAR-NOS” zabalkunde kanpaina
EDUKIA	Zainketa eta tratu ona gazteen artean zabaltzeko kanpaina
NORENTZAT	Antsoaingo gazteentzat
EGUTEGIA	URTE OSOA
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Hedapenerako material eta euskarri grafikoak.
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	GAZTELEKUA ETA ITUNAREN TALDE KOORDINATZAILEA
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK.

JARDUERA ZENBAKIA	2.1
ALORRA	PRESTAKUNTZA
IZENBURUA/HELBURUA	GURASOENTZAKO ZAINKETA ESKOLA
EDUKIA	Gurasoentzako prestakuntza eta gogoeta tailerrak, zainketaz, erantzunkidetasunaz eta bateragarritasunaz.
NORENTZAT	Antsoaingo gurasoentzat
EGUTEGIA	URTE OSOA
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Prestakuntza emanen duen pertsona, aretoa, materialak
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	GURASO ELKARTEAK, IKASTETXEAK ETA BERDINTASUN ALORRA.
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK.

JARDUERA ZENBAKIA	2.2
ALORRA	PRESTAKUNTZA
IZENBURUA/HELBURUA	NORK BERE BURUA ZAINTEKO TAILERRAK
EDUKIA	Aztura osasungarriei buruzko prestakuntza tailerrak, nork bere burua zaindu dezan.
NORENTZAT	Antsoaingo herritarrentzat
EGUTEGIA	2012an barrena
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Prestakuntza emanen duen pertsona, aretoa, materialak
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	OSASUN ETXEA ETA BERDINTASUN ALORRA
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATEAK

JARDUERA ZENBAKIA	2.3
ALORRA	PRESTAKUNTZA
IZENBURUA/HELBURUA	ZAINKETA ETA BATERAGARRITASUN TAILERRAK
EDUKIA	Prestakuntza eta gogoeta tailerrak, jendea eta geure burua zaintzen ikasteko, eta zainketa-lanetan eta bateragarritasunean erantzunkidetasuna txertatzeko.
NORENTZAT	Antsoaingo gurasoentzat eta, oro har, herritarrentzat
EGUTEGIA	URTE OSOA
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Prestakuntza emanen duen pertsona, aretoa, materialak
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	BERDINTASUN ALORRA
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK.

JARDUERA ZENBAKIA	3.1
ALORRA	PERTSONEN ARTEKO AKORDIOAK
IZENBURUA/HELBURUA	ZAINKETAREN ALDEKO FAMILIAK
EDUKIA	Lan-formulak eta -prozedurak aztertzea eta familiak aldaketa-prozesuetan engaiatzea, zainketari eta erantzunkidetasunari dagokienez.
NORENTZAT	Antsoaingo familientzat
EGUTEGIA	URTE OSOA
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Dokumentazioa eta materialak
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	ITUNAREN TALDE KOORDINATZAILEA
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK.

JARDUERA ZENBAKIA	3.2
ALORRA	PERTSONEN ARTEKO AKORDIOAK
IZENBURUA/HELBURUA	BIZIKIDETZAN ELKAR ZAINZEA
EDUKIA	Antsoainen ezkontzen diren edo elkarrekin bizitzen hasten diren bikoteen artean banatzen diren kontratuak edo materialak.
NORENTZAT	Antsoainen elkarrekin bizitzen hasten diren bikoteentzat.
EGUTEGIA	Urte osoa
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Dokumentazioa eta materialak
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	ITUNAREN TALDE KOORDINATZAILEA
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK.

JARDUERA ZENBAKIA	3.3
ALORRA	PERTSONEN ARTEKO AKORDIOAK
IZENBURUA/HELBURUA	ZAINKETAREN ALDEKO FAMILIAK ELKARREKIN
EDUKIA	Familiantzako gogoeta talde pilotua, bateragarritasunaren aldeko familia- eta gizarte-itunak diseinatu eta lantzeko.
NORENTZAT	Antsoaingo familientzat
EGUTEGIA	Urte osoa
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Dokumentazioa eta materialak
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	ITUNAREN TALDE KOORDINATZAILEA
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK.

JARDUERA ZENBAKIA	3.4
ALORRA	PERTSONEN ARTEKO AKORDIOAK
IZENBURUA/HELBURUA	UDALAREKIKO HITZARMENAK ETA KONTRATUAK BERRIKUSI ETA EGUNERATZEA
EDUKIA	Antsoaingo Udalak eta Udalarekin udal hitzarmenak eta kontratuak berrikustea, lehendik dauden xedapenak eta betebeharrak hobetzeko eta zainketa, erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna kontuan hartzen dituzten xedapen eta betebeharrak txertatzeko.
NORENTZAT	Antsoaingo herritarrentzat eta langileentzat
EGUTEGIA	Urte osoa
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Kontratuak eta hitzarmenak. Dokumentazioa eta materialak
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	BERDINTASUN ALORRA ETA ITUNAREN TALDE KOORDINATZAILEA
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK.


JARDUERA ZENBAKIA	4.1
ALORRA	ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK
IZENBURUA/HELBURUA	ZERBITZU PUBLIKOAK BERRIKUSI ETA EGOKITZEA
EDUKIA	Zerbitzuak berrikusi eta berregituratzea, eta zainketa-lanen, erantzunkidetasunaren eta bateragarritasunaren premia eta eskarietara egokitzea.
NORENTZAT	Antsoaingo herritar guztientzat
EGUTEGIA	URTE OSOA
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Materialak eta dokumentuak
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	BERDINTASUN ALORRA ETA UDAL ZERBITZUAK
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK

JARDUERA ZENBAKIA	4.2
ALORRA	ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK
IZENBURUA/HELBURUA	MERKATARITZARAKO BATERAGARRITASUNA ANTSOAINEN
EDUKIA	Berriazko xedapenak txertatzea, Antsoaingo merkatariek udalerrian antolatzen diren jardueretan parte hartzeko aukera izan dezaten, udalerrian erroldatuta ez badaude ere.
NORENTZAT	Antsoaingo merkatarientzat eta enpresentzat
EGUTEGIA	URTE OSOA
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Pleguak eta programak
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	BERDINTASUN ALORRA ETA UDAL ZERBITZUAK
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK


JARDUERA ZENBAKIA	4.3
ALORRA	ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK
IZENBURUA/HELBURUA	GASTRONOMIA-ELKARTE ZAINZAILAK ETA SOLIDARIOAK
EDUKIA	Jantoki sozialari eta solidarioari buruzko esperientzia pilotua adinekoentzako, Antsoaingo gastronomia-elkarte batean.
NORENTZAT	Antsoaingo adinekoentzat
EGUTEGIA	URTE OSOA
BARNE ETA/EDO KANPO BALIABIDEAK	Monitorea, materiala, aretoa
ERAKUNDE KOORDINATZAILEA	BERDINTASUN ALORRA ETA CARITAS
ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK	ITUNEAN DAUDEN ENTITATE GUZTIAK

ENTIDADES FIRMANTES DEL PACTO

INSTITUTO NAVARRO PARA LA IGUALDAD Y FAMILIA
Firma Dña Sara Ibarrola Intxausta




Ayuntamiento de Ansoáin
Firma D. Antonio Gila Gila




Mancomunidad de Servicios Sociales
Firma D. Koldo Pja Larramendi




Centro de Salud de Ansoáin
Firma Dña. Lourdes Echeverria Lizarraga




Ezkaba Eskola
Firma Dña. Jone Urrutia Riezu




PSN
Firma Dña. Arantza Biurrun



BILDU
Firma D. Ander Oroz



Asoc. de Mujeres Dinámica
Firma Dña. Valeri Beorlegui Ayanz




Cáritas Ansoáin
Firma Dña. Nieves Pérez de Urabayen



Asoc. de Esclerosis múltiple de Navarra
Firma Dña. Blanca Esther Villanueva Durantez




Apyma ALAITXO EIGE
Firma D. Xabier Mendibil




AGI (Gazte Asamblada)
Firma D. Endika Garay Vales




BIKUPE ELKARTEA
Firma Dña. Silvia Miranda Iriarte




SARASPEA ELKARTEA
Javier Yoldi Jaunak sinatzen du




TXINPARTA ELKARTEA
Juanxo Goñi Aguerreta Jaunak sinatzen du




ARIKULUNKA ELKARTEA
María Olaiz Andreak sinatzen du



SEDENA SL
Jose Ramón Iruarte Goyena Jaunak sinatzen du



PAUMA SL
Daniel Arana Lerga Jaunak sinatzen du



ODOS SL
Esterban España Pérez Jaunak sinatzen du



ERANSKINA: ENTITATE SINATZAILEEN DESKRIBAPENA

ANTSOINGO UDALA

Antsoingo Udala toki-entitate bat da eta konprometitu dago bere lurraldea iraunkortasunez garatzeko. Hartara, hainbat tresna ditu eskura: Tokiko Ekintza Plana, emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunaren aldeko I. Plana, Emakumeekiko Indarkeriaren aurkako toki-ekintzako I. Protokoloa eta bateragarritasunaren aldeko Itun hau berau. Horrez gain, administrazio-izaerako lanak ere egiten ditu herritarrentzako, hainbat lan-alorren bitartez.

Berdintasunari buruzko 2007ko Lege Organikoak jaso duen bezalaxe, botere publikoei behar adina baldintza sustatzea dagokie, jendearen eta taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko; botere publikoek, hartara, oztopoak oro kendu behar dituzte askatasuna eta berdintasuna bere osoan gara daitezen, eta herritarren parte-hartzea sustatu behar dute politikan, ekonomian, kulturen eta gizartean ari daitezen.

Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea den heinean, zeharkako estrategiak garatu eta neurri zuzentzaileak ezarri behar ditu gizonen eta emakumeen arteko berdintasun kontuetan, egungo bereizkeriak ezabatze aldera eta zailtasunei aurre egiteko neurriak bultzatze aldera.

Berdintasun Batzordeko burua, Berdintasunerako Zerbitzua, Tokiko Agenda 21 eta Enplegu eta Toki Garapeneko Agenteen Zerbitzua dira ordezkariak.

“SAN CRISTÓBAL” HAUR HEZKUNTZAKO UDAL ESKOLA

0 eta 3 urte arteko Haur Hezkuntzako Udal Ikastetxe bat da, eta Haur Hezkuntzako zikloari dagokio, Hezkuntzari buruzko 2006ko maiatzeko Lege Organikoaren arabera eta 2007ko Foru Dekretuaren arabera.

Kudeaketa-eredua titulartasun publikokoa da eta zerbitzu guztiak zuzenean kudeatzen dira. Finantzaketak hiru bide ditu: erabiltzaileen kuotak, Nafarroako Gobernuaren ekarpena eta Udalaren ekarpena.

Ikastaroa abuztuaren 16an hasi eta ekainaren 30ean bukatzen da. Ikastetxea astelehenetik ostiralera dago irekita, 7:30etik 16:30era. Hizkuntza-eredua gaztelaniazkoa da, euskara sartuta. Era berean, jantoki-zerbitzua eskaintzen du, eta janaria eskolan bertan prestatzen da. Honatx lantaldea: koordinatzaile bat, zortzi hezitzaile, sukaldari bat, sukalde-laguntzaile bat eta garbiketa-laguntzaile bat.

Horrez gain, hezkuntza-premia bereziak dituzten 2 eta 3 urteko haurrak integratzeko moduluak ere badaude; hau da, laguntza-hezitzaile bat edo batzuk dituzte. Ratioen gainetik daude.

HARROBI, ANTSOINGO GAZTELEKUA

Antsoingo Gaztelekua Udal zerbitzu bat da, herriko 12 eta 30 urte arteko gazteentzat da, eta Pauma S.L. enpresak kudeatua dago.

Taldea hainbat alorretan (Gizarte Hezkuntzan, Gizarte Lanean, Psikologian...) prestatuta dauden profesionalen osatuta dago eta gazteekin egiten du lana, aisia landuta; hartara,

jarduerak eta ikastaroak antolatzen dituzte, eta, era berean, laguntza ematen diete Antsoingo gazte taldeen ekimenei, koordinazioan aritzen dira herriko hainbat gazte elkarterekin, gelak uzten dituzte gazteek beren jarduerak egin ditzaten, topaketarako eremua ere eskaintzen dute (harremanak egiteko, jostatzeko.... leku bat), ordenagailuak gazteen eskura uzten dituzte, eta hainbat tailer antolatzen dituzte gazteentzako gai interesgarriak lantze aldera.

Gaztelekuan, gainera, Antsoingo Gazteentzako Informazio Gunea dago. Gunean, behar bezalako informazioa ematen zaie herritarrei, hainbat gairen inguruan egindako galderei erantzuteko: aisia, osasuna, prestakuntza, enplegu bilaketa, etxebizitza, beka eta laguntzak, bidaia, etab.

GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea tokiko entitate bat da eta Antsoingo, Berriobeitiko, Berriozarko, Itzako eta Txulapaingo Udalez osatua dago. Hona hemen haren eginkizunak: erabiltzaileari zuzeneko laguntza ematea, eta prestazioei, laguntzei eta zerbitzuei buruzko informazio zuzena ematea. Bi bulego ditu jendeari harrera egiteko: bata Antsoainen bertan, eta bestea, Berriozarren. Profesionalen lantaldea honela osatua dago: Psikologo 1, 5 Gizarte Laguntzaile, 4 Gizarte Hezitzaile, 11 Familia Langile, 2 Administrazio Laguntzaile, Administrazio-ofizial 1 eta Idazkari Kontu-hartzaile 1.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek gizarte zerbitzuen sistema publikoaren oinarrizko unitatea osatzen dute eta sistema horretan sartzeko atea dira, hartzaileengandik dagoen mailarik hurbilena baita, bai eta gizarte eta familia arloko mailarik hurbilena ere. Titulartasuna toki entitateei dagokie.

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko harrera-unitate bakoitzak lau programa ditu, guztiak ere Gizarte Zerbitzuen legearen arabera antolatutakoak.

- Harrera eta Gizarte Orientazio Programa, herritar guztiei zuzendua, gizarte zerbitzuetan eskaerak aurkezten dituzten pertsonen giza laguntza eskaintzeko. Doakoa da.
- Norberaren autonomia sustatzeko eta mendekotasunean daudenei laguntzeko programa. Helburu da mendekotasun egoeran dauden pertsonen bere ohiko ingurunean ahalik eta denbora gehiena egon ahal izateko aukera ematea.
- Lehen Laguntzako Gizarteratze Programa. Xedea da edozein arlotan gizarte-bazterketan erortzeko arriskuan dauden pertsonak edo gizarteak baztertuak dauden pertsonak gizarteratzen laguntzea .
- Lehen Laguntzan Haurrei eta Familiei Laguntzeko Programa. Helburua da adingabeei behar bezalako ingurunea bermatzea, garapen pertsonalerako, betiere babes-bitartekoen bidez, bai eta laguntza pertsonala, familiarra eta soziala emanez.

PSN

Nafarroako Alderdi Sozialistak sei zinegotzi ditu Antsoainen, legealdi honetan. Bere garaian, gure programa politikoak orain sinatu dugun Antsoingo Bateragarritasunaren aldeko Ituna jaso zuen. Hori dela-eta, erantzunkidetasunean oinarrituta, ahalegina egiten jarraitzen dugu neurriak garatzeko, gure herriko herritarren familia, lana eta norberaren bizitza bateragarri egiteko.

BILDU

Hainbat alderdiz eta pertsona independentez osaturiko koalizioa da eta, joan den udal hauteskundeetan, lau zinegotzi lortu zituen Antsoaingo Udalean. Gure proiektu politikoak bi ezaugarri nagusi ditu: batetik, ezkerreko indar politiko eta sozial abertzale eta aurrerazaleak metatzea, Euskal Herriko herritarrek beren etorkizunaz erabakitzeko duten erabaki-eskubidea lortze aldera, eta, bestetik, arlo guztietan justizia sozial handiagoa lortzera bideratutako jendarte-ereduaren alde lan egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borroka barne, jakina; eta, era berean, erakundeak irekitzea, herritarrek erakundeen kudeaketan eta erabakietan gehiago parte har dezaten.

ANTSOAINGO OSASUN ETXEA

Antsoaingo Osasun Etxea Nafarroako Gobernuaren mendean dagoen Entitate Publiko bat da. Langile/profesional hauez osatuta dago: 6 administrariz, 3 pediatraz, 2 pediatria-erizainez, 4 sendagilez eta familia-sendagile 1ez, helduentzako 5 erizainez eta gizarte langile 1ez.

Gure Osasun Etxean ari den lantaldearen helburua da Antsoaingo herritarren osasuna hobetzea, osasunerako hezkuntza, prebentzio eta sustapen jardueren bidez. Gizabanako bakoitzarengan esku hartzen da, bai eta erkidegoan ere.

Hona hemen zer jarduera egiten diren: eskaintza, aldez aurreko hitzordua jarrita; Patologia kronikoak kontrolatzea; Ezgaituei laguntzeko etxez etxeko zerbitzua; Osasun-azterketa osagarriak; Krioterapia/kirurgia txikia; Osasunerako hezkuntza sustatu/prebenitza; Gizarte eta osasun arloko prestazioak izapidetzea; Laguntza psikosoziala; Sarturik ez dauden pertsonen osasun-sistamarako sarbidea ematea.

EZKABA ESKOLA

Ikastetxe publiko eta euskalduna da, D eredia ematen baitu. Hau da, murgilketa-eredua da, irakasgai guztiak euskaraz baitira. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ematen ditu; 3 eta 12 urte arteko hezkuntza, alegia. Hezkuntza integrala eskaintzen du, gaitasunak eta hezkuntza lantzen dira, betiere gure gizartean bizitzeko behar diren balioetan oinarrituta. Horrenbestez, gizarteari irekita dagoen eskola bat bultzatzen du, herrian bertan txertatua dagoena, eta, era berean, bizikidetzaren positiboa, auto-errespetua, pertsona guztiekiko errespetua eta ingurunearekiko errespetua bultzatzen ditu.

Eskola eleanitza da, Hizkuntza Proiektu bateratua duena, eta ikasleen artean euskara bultzatzen duena.

Teknologia Berriak eguneroko zereginetan erabiltzen ditu. Lan egiten du irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak finkatzeko, emaitza akademikoak etengabe hobetze aldera.

Eskolan, halaber, badira hainbat plan eta proiektu hainbat arlo lantzeko: dibertsitatea, Kalitatea Kudeatzeko Sistema, Bizikidetzaren Plana, ingurumena errespetatzea, Tutoretza Plana, Irakurzaletasuna Bultzatzeko Plana, Euskara Batzordea.

ANTSOAINGO EMAKUME DINAMIKOEN ELKARTEA

Antsoaingo Emakume Dinamikoaren Elkarteak 1994an eratu zen legez, baina 1987tik aurrera hainbat topaketa hasi ziren, une hartara arte etxeko lanetan aritutako emakumeentzako

jarduerak egiteko. Horrela, hainbat ikastaro egin zituzten: joskintza, eskulanak, gizarte trebeziak, nutrizioa, kultura orokorra, pertsonen arteko harremanak eta auto-estimua.

Urteak joan urteak etorri, estatutuak zaharkituak gelditu ziren, ez baitziren emakumeen egungo beharretara moldatzen; hori dela-eta, 2010ean aldatu zituzten.

Elkarteak diru-laguntzak jasotzen ditu, emakumeak banaka eta taldeka prestatzeko.

Hona hemen elkarteak zer xede dituen: emakumeak etengabe prestatzen laguntzea, emakumearen gizarte-parte hartzea sustatzen duten gaietan, berdintasuna bultzatzeko; emakumeen balioa gizartean aitortzen eta aintzat hartzen laguntzea; beste elkarte batzuekin elkarlanean aritzea; emakumeen ahalduntzea sustatzea eta aukera-berdintasuna bultzatzea.

Xedeak lortzeko, hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak, kultur bidaiak, erakusketa-bisitak, mintegiak eta beste antolatzen dituzte.

ANTSOINGO CÁRITAS

Eliza katolikoaren erakunde bat da, irabazi-asmorik gabea, eta haren helburu nagusia da Ebanjelioa bizitzea beharrean dagoen jendeari laguntza emanez. Hartara, gure lana Antsoingo parrokian egiten dugu.

Laguntza ematen dugu, baina aldi berean, pertsonak gizarteratzen laguntzen ditugu, bai eta haien bilakaera pertsonalean ere, eta gizon-emakume haien premiei eta gabeziei erantzuten diegu.

Tailer bat egiten dugu bazterketa-egoeran sartzeko arriskuan dauden emakumeentzako; lanabes egokia da emakume horiek laneratzeko (alfabetatzea, joskintza, psikomotritzitatea, gizarte jarraibideak eta trebeziak, udal bizitzan parte hartzea...), bai eta haien garapen pertsonalerako ere, haien familian eragiteaz gainera. Diruz lagundutako ikastaroa da emakume parte-hartzaileentzako.

Oinarrizko errenta aurreratzen dugu, Gizarte Zerbitzuekin koordinaturik, Administrazioa atzeratzen bada.

Oinarrizko premiak betetzen ditugu, elikagai bankuaren bidez, pertsonak beren bizitzaren jabe izateko prozesuan aurrerapausoak emateko.

Gure ingurunera etortzen diren gizon-emakumeak hartzen ditugu, eta antolatzen laguntzen ditugu, elkarrekin haien premiak eta eskariak planteatzeko.

Antsoingo Cáritas erakundearen beste mundu bat posiblea dela sinesten dugu.

NAFARROAKO ESKLEROSI ANIZKOITZAREN ELKARTEA

Irabazi-asmorik gabeko Elkarte bat da, 1996an jaioa eta interes publikoko elkartetzat deklaraturakoa. Nafarroan, esklerosi anizkoitzak eta bestelako gaitz neuro-degeneratiboek jota dauden 360tik gora lagun dira bazkide, bai eta haien sendiak ere. Elkartearen Nafarroako Minusbaliatuen Ordezkariei Batzordean (CORMIN) dago, bai eta COCEMFE erakundeko kidea ere (Minusbaliatu Fisiko eta Organikoen Espainiako Konfederazioa).

ADEMNA Elkartearen helburua da esklerosi anizkoitzak eta bestelako gaitz neuro-degeneratiboek jota dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, bai eta haien senitartekoena ere, hala maila fisikoan eta psikologikoan nola sozialean; aldi berean, irabazi-asmorik gabeko elkarte den heinean, elkarteak gaitz horiek jota dauden eta haien senitartekoen ordezkaria izan nahi du gizarte-estamentuen aurrean: hots, osasunarekin lotutakoak, administrazio publikoak, arduradun politikoak eta gizartea, oro har.

Zerbitzuak eta programak eskaintzen ditu: Harrera, Orientazioa eta jarraipena; Errehabilitazio Fisikoa; Fisioterapia; Logopedia; Lanerako Terapia; Errehabilitazioa, Petö Metodoa; Laguntza Psikologikoa; Gizarte Laguntza; aisia, gizarte sentsibilizazioa eta dinamizazioa; eta, eguneko Zentroa, gaitz neuro-degeneratiboek eraginda mendekotasunean daudenentzat.

EZKABA IKASTETXEKO GURASO ELKARTEA

Antsoingo Ezkaba ikastetxe publikoko ikasleen guraso elkarte da, ikastetxera doazen familien % 80k osatutakoa. Ordezkariak eta elkartekideak borondatezkoak dira, bai eta aipatu lagunek betetzen dituzten karguak ere.

Lan-batzordeka antolatua dago eta, aldi behin, bilerak egiten ditugu gure jarduerak eta proposamenak bateratzeko; batzordeak erabat irekiak dira eta nahi duen orok bere proposamenak eta ideiak egin ditzake.

Urtero, batzar orokor bat egiten da, aurrekontuak onesteko eta arduradunak izendatzeko.

Ikastetxearekin batera hainbat jarduera antolatzen ditugu. Olentzero, Inauteriak, jantoki-kudeaketa eta jarraipena, ikasturte amaierako jaia, eskola-baratzea, ziklo bakoitzeko ikasleekin batera.

Eskolaz kanpoko jarduerak (antzerkia, jokoak, dantza, musika, zirkua, eskulanak, pintura) antolatzen ditugu; oporretan hiriko kanpamentuak gure hizkuntzaren erabilera eskola-orduetatik kanpo sustatzeko, eta lana eta familia bateragarri egiteko.

Gurasoentzako ikastaroak eta hitzaldiak ere antolatzen ditugu, osaera desberdinekoak, zer ziklorentzat bideratuta dauden.

Gure iritziz, itun hau interesgarria da gure Elkartearentzat, Antsoingo familiez osatuta baikaude, eta gainerako familiekin harremanetan sartzeko bide bat dugu gure jarduera guztien bitartez.

AGI (Gazte Asanblada)

Gazte Asanblada talde bat da, 15 eta 25 urte arteko Antsoingo gazteez osatutakoa; baina nahi duen gazte oro izan daiteke taldeko kidea.

Talde kide guztiak borondatezkoak dira; guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, eta dena elkarrekin antolatzen eta erabakitzen dute.

Ostiral arratsaldero biltzen dira Antsoingo Auzo Elkartearen, beren proiektuak, ideiak, proposamenak eta herrian gaurkotasuna duten gaiak eztabaidatzeko.

Hainbat jarduera antolatzen ditugu herriarentzako, Antsoaingo beste talde eta elkarte batzuekin elkarlanean: hala nola, Olentzero, Inauteriak, Antsoaingo jaiak, besteak beste.

Udalarekin batera, beste jarduera batzuk egiten ditugu: futbol aretoko 12+12 txapelketa, Gazteriaren Astea, Gazteriaren Eguna, mendi-zeharkaldia (5 egun).

Gure jardueren xedea da Antsoaingo gazteak elkartzea eta gazteak mugiarazten saiatzea, herriko bizitzan era aktiboan parte har dezaten eta hainbat jardueratan boluntario-lanetan ari daitezen.

SARASPEA ELKARTEA

Gastronomia, kirol eta kultur elkarte da, Antsoainen kultura eta kirola sustatzeko. Elkartearen egoitza Rafael Alberti Plazaren 4an dago, etxabeen.

Saraspea elkarte 60 familiaz osatuta dago, eta senitartekoekin eta lagunekin Antsoaingo Rafael Alberti plazako egoitzan elkartzen dira, gastronomiaren plazerez gozatzeko eta, era berean, gizarte, kultur eta kirol arloko kezak partekatzen.

BIKUPE ELKARTEA

2006an sortutako elkarte da eta Mendikale kaleko 12ko beheko solairuan dago. Izaera anitzeko pertsona talde batez osatua dago, eta irekitasunez eta malgutasunez lan egiten dute beren xedeak betetzeko asmoz. Batzordeka antolatua dago, junta bat ere badago, bai eta batzarra ere, eta aldiari behin biltzen dira, erabakiak elkarrekin hartzeko.

Hona hemen helburuak; besteak beste, euskara, hemengo folklorea eta euskal kulturaren gainerako osagaiak bultzatu eta sustatzea, bai eta historia eta gizarte tankerako beste alderdi batzuk ere; antzeko alorretan diharduten elkarteekin eta erakundeekin elkarlanean aritzea. Elkartekideen aisia eta olgeta sustatzea, kultur, gizarte, kirol eta gastronomia arloko jarduerak eginez. Antsoainen antolatzen diren jardueretan buru-belarri parte hartzea (Olentzero, Inauteriak, Jaiak, txapelketak, hitzaldiak, e.a.).

Eta, giza garapenarekin lotuta dauden esparruak bete nahian, berdintasunak toki berezia izan behar du, bai eta familiaren, lanaren eta norberaren bizitzaren bateragarritasunak ere.

TXINPARTA ELKARTEA

Txinparta Elkarte gastronomia eta kultur elkarte da, eta Antsoaingo kulturaren alde aritzen da lanean. Duela hogeit bat urtetik hona, lanean ari da Ezkaba mendiko Alfontso XII.a Gotorlekutik ihes egindakoen gaineko oroitzapena lehengoratzeko eta duintzeko.

ARRIKULUNKA ELKARTEA

Gastronomia eta kultur elkarte da, 60 bat bazkidez osatutakoa. Helburu nagusi hauek ditu sortzetik beretik: oro har, gure kultura babestu eta hedatzea, eta, bereziki euskara sustatzea. Arrikulunkak Antsoaingo beste talde batzuekin elkarlanean aritzen da, ildo horrekin bat urtean barrena egiten diren hainbat ekimenetan: adibidez, Olentzero, Inauteriak, Antsoaingo eguna, Arrikurock, etab. Elkarreak, halaber, bere jardueren egitaraua prestatzen du; adibidez, erakusketak, xake-txapelketa, antzerkia, hitzaldiak, eta beste.

SEDENA SL

Enpresa hau instalazioak kudeatzeaz, jarduerak programatzeaz eta ekitaldiak antolatzeaz arduratzen da, eta bereziki kirolean, aisian eta denbora librean dihardu, bai eta hezkuntzan eta kulturaren ere.

Gure zerbitzuak adin guztietako taldeentzako antolatzen ditugu (hau da, haurrentzat, gazteentzat, helduentzat eta minusbaliatuentzat), hala sektore publikoaren nola pribatuaren ekimenez.

Antsoainen, 90eko hamarkadako erditik aurrera hasi ginen zerbitzuak ematen. Gaur egun, ondoko zerbitzu hauek ematen ditugu: jarduera fisikoetarako, kirol jardueretarako eta kultur jardueretarako teknikariak, sorosleak, sarbide-kontrolak, ostalaritza eta leihatilak, eta antzoki-aretozaina.

Antsoainen guztira kontratatuta dauden pertsonetatik, emakumeen ehunekoa hauxe da: teknikariak, % 71; zerbitzuetako langileak, % 81.

RECONCILIA izeneko zigiluaren jabea da, 2011ko azaroaz geroztik.

PAUMA SL

Pauma s.l. enpresa, 1985etik aurrera, gizarte- eta hezkuntza-baliabideak kudeatzeaz arduratzen da, arlo publikoko eta pribatuko bezeroentzako.

Haurren, familien, gazteen, hirugarren adinaren eta hezkuntza-inguruneko eskariei eta premiei erantzuten die. Enpresaren programek bateragarritasuna, gizarteratzea eta laneratzea sustatzen duten programak gauzatzen dituzte, eta, era berean, ingurumenaren aldeko jarrerak sustatzen ditu pertsona onuradunengan.

Arlo oso desberdinetan dihardu, baina guztiak elkarren artean lotuta daude. Horri esker, gizarte garapenean laguntzen du, eta enpresaren harrera jasotzen duten herritarren bizibaldintzak hobetzen dira. Hartara, praktikan, irizpide hauek erabiltzen ditu: etengabeko hobekuntza, lanbide-printzipio etikoak errespetatzea eta ingurumen-eragina lanean murriztea.

Ehun eta hogeitik gora profesional dira Paumako kide, diziplinarteko taldeetan banatuta, eta hainbat arlotan prestakuntza jaso dutenak: psikologian, pedagogian, gizarte-hezkuntzan, gizarte-lanean, animazio soziokulturalean, ingurumen-hezkuntzan, ekonomia-kudeaketan eta enpresa-kudeaketan. Kudeaketa-ereduarekin bat, etekin guztiak entitate bera mantentzera bideratzen dira, eta langileen egonkortasunari ematen zaio lehentasuna.

Gaur egun, erakunde hauekin dihardu lanean: Familiaren, Haurraren eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusia (Nafarroako Gobernua), Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzen Fundazioa (Nafarroako Gobernua), Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusia (Nafarroako Gobernua), Nafarroako Enplegu Zerbitzua, eta Antsoain, Barañain, Eguesibar eta Zizur Nagusiko Udalekin, bai eta Unibertsitate Publikoarekin eta Kutxarekin ere.

ODOS SL

ODOS, Servicios Deportivos, Culturales y de Ocio S.L. enpresa gazte eta dinamikoa da, eta Udalei, Elkartei, Enpresei, Herritarrei eta bestelako Entitatei denetariko zerbitzuak eskaintzen dizkie, guztiak ere Kirolarekin, Kulturarekin, Hezkuntzarekin eta Aisiarekin lotutakoak. Zerbitzu asko eta asko eman ditu 2003. urtean sortu zenetik, eta bezero ugarien konfiantza eta fideltasuna bereganatuak ditu.

Enpresak zorrotz betetzen du indarrean dagoen legeria, eta lantaldea gaitasun eta kualifikazio handiko profesionalen osatua dago, guztiak ere esperientzia zabalekoak enpresak kudeatzen dituen zerbitzu guztietan.

Taldekide guztiak kalitateko zerbitzua eskaintzen eta hobetzen ahalegintzen dira, xede horri emanak baitaude erabat; horri esker, kudeaketa-erakunde hau erabat da gauza eta arduraz jokatzeko lan zorrotza, gardena eta bizia emateko.

Printzipio hauek dira jardueraren oinarri: berrikuntza etengabea, sormena, espezializazioa, malgutasuna, berdintasuna, iraunkortasuna, kalitatea eta etengabeko hobekuntza. Printzipio horiekin bat, enpresa oso eraginkorra eta eragingarria da zerbitzuak ematerakoan, eta bere bezeroen artean konfiantza handia sortzen du.

*Bateragarritasunaren aldeko Toki Ituna programaren laguntza teknikoarekin harremanetan sartzeko, erabili mesedez telefono-zenbaki hauek: **678788342 (Neus Albertos)** edo **678788343 (Magalí Martínez)**, bai eta helbide elektronikoa hau ere: **plcnavarra@travesiasporlaigualdad.com.es***